

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

578

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 28koa, Lurralde Plangintzaren sailburuordearena, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko uztailaren 31ko Aginduan ezarritako laguntzen deialdia ebatzi eta argitara ematen duena. Agindu horren bidez ezartzen dira 2018ko ekitaldirako dirulaguntzak arautzeko oinarriak, eta horietarako deialdia egiten da, ZTBP Euskadi 2020ren (BAI+D+i programa) «hiri habitat» aukera-nitxoko helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko.

2018ko abuztuaren 24ko EHAAn (163. zk.) Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko uztailaren 31ko Agindua argitaratu zen, zeinaren bidez ezartzen baitira 2018ko ekitaldirako dirulaguntzak arautzeko oinarriak, eta horietarako deialdia egiten baita, ZTBP Euskadi 2020ren (BAI+D+i programa) «hiri habitat» aukera-nitxoko helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko.

Eskabideak aurkezteko epea 2018ko irailaren 27an amaitu zen, aipatutako aginduaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera. Horrela izanik, hogeitau eskabide sartu dira, baina horietako eskaera bat, Miriam Varela Alonsok eginikoa, bi aldiz egin da, beraz gainerako 19 eskaerak aztertu eta egiaztatuko dira.

Dirulaguntza hauek arautzen dituen 2018ko uztailaren 31ko Aginduaren 13. artikuluan xedatutakoarekin bat, azaroaren 28an horretarako balorazio-epaimahaia eratu zen, hartutako eskabideak aztertu eta egiaztatzeko xedez, kontuan hartuta 11. artikuluan xedatutakoa, hau da, esleipenerako irizpideak eta gehieneko puntuazioa.

2018ko uztailaren 31ko Aginduaren 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, guztira 650.000 euro bideratuko dira dirulaguntzak emateko. Bestalde, 9. artikuluko horrek zehazten du diruz lagunduko dela paisaiarako ekintza-planak idazteko ordainsarien % 80, proiektu bakoitzerako 100.000 euroko gehieneko muga jarrita, aurrekontuko kreditua amaitu arte, eta ezin izango direla diruz lagundu ez BEZa ez bestelako zergak, nola eta ez den egiaztatzen kostua eragiten diola onuradunari.

Epaimahaiak, proposamenak aztertu eta egiaztatu ostean, 14. artikuluan xedatutakoari jarraituz, 2018ko abenduaren 3an eta 14an, sailburuordeari aurkeztu zion esleipenerako proposamena, non adierazten baitu zein den diruz laguntzeko diren eskabideen lehentasuna, zeini esleitu zaien dirulaguntza eta zeini ukatu, eta zergatik hartu den erabaki hori.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko uztailaren 31ko Aginduaren 14. artikuluan xedatutakoarekin bat (agindu horren bidez ezartzen dira 2018ko ekitaldirako dirulaguntzak arautzeko oinarriak, eta horietarako deialdia egin, ZTBP Euskadi 2020ren (BAI+D+i programa) «hiri habitat» aukera-nitxoko helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko), eta horretarako eraturako balorazio-epaimahaiak proposatutakoa ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «Hiri habitat» aukera-nitxoko helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko dirulaguntzak ematea ebazpen honi atxiki zaion I. eranskinean zerrendatuta agertzen diren pertsona eta entitate onuradunei, proiektua egiteko eta dokumentuan aipatzen den zenbatekoan.

Bigarrena.– «Hiri habitat» aukera-nitxoko helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko dirulaguntzak ukatzea II. eranskinean adierazitako pertsona eta entitateei, horretarako arrazoiak adierazita.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eskatzaile guztiei jakinarazteko, deialdia egiteko aginduaren 14. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 28a.

Lurralde Plangintzaren sailburuordea,
MARIA ARANZAZU LETURIONDO ARANZAMENDI.

2019ko otsailaren 4a, astelehena

I. ERANSKINA
Emandako eskabideak

	Pertsona eta entitate onuradunak	Proiektuaren titulua	Onetsitako aurrekontua bez gabe (euro)	Diruz lagundutako Ehunekoa	Emandako dirulaguntzaren gehienekoa (euro)
1	Emaus Fundación Social	Plýades: hiriaren mugako industrialdeen modulu-berritze holistikoa (fisikoa, soziala, ekonomikoa, formaziokoa eta baliabideen erabilerrakoa)	90.153,88	% 80	72.122,40
2	Eraikune Asoc Cluster de la Construcción de Euskadi	OtxarZEB: Otxarkoagako auzoa birgaitzeko ZEB prototipoa	119.120,00	% 65	77.428,00
3	Moragues and Scade Abogados SA	TXONTA-BARRIA: «Eibariko hiri guziz eredugarria» Ekoizpen-hiri berri baterako prototipoa	155.000,00	% 65	100.000,00
4	Behark Arkitektura SLP	Hiri-berrikuntzako laborategia, parte hartuzko diagnosi, diseinukidetza eta testatze baterako, mugikortasuna eta espazio publikoaren kalitatea hobetzeko.	125.700,00	% 76	95.170,00
5	Asociación Bilbao Urban & Cities Design – Urbanismo y Ciudades	Otxarkoaga auzo Green Factory-Auzo mailako birnaturalizazioa	72.000,00	% 43	30.987,50
6	Hiritik At Koop. Elk. Txikia	[pAUZOA]: Otxarkoagako poligonoaren hiri- indarberritzea.	48.070,00	% 77	37.213,25
7	AH & Asociados, Arquitectos, Grupo Norte SL	EAEko auzo kalteberetako lokal hutsak mobilizatzeko kudeaketa-sistema eta irtenbide teknikoak	106.970,91	% 74	79.020,01
8	Miriam Varela Alonso	Otxar «Active Frontage», hiri-birsortze integralerako plana	127.200,00	% 60	76.320,00
9	Semáforo Ruido SL	Kutsadura akustikoa gutxitzeko estrategia balidatzeko proiektu pilotua, teknologia eta prozesu berritzaileen bidez, euskal hiriburuko hirigune historikoaren hiri-berritzean laguntzeko xedez.	109.772,00	% 60	65.863,20
Guztira					634.124,36

2019ko otsailaren 4a, astelehena

II. ERANSKINA

Ukatutako eskabideak

	Persona eta entitate eskatzaileak	Proiektuaren titulua	Ukatzeko arrazoia
1	Teknimap Energía y Medioambiente SL	Hiri-berritzeen proiektuetako zoladuren zikloen kostuak kalkulatzeko	Ez da iritsi 70eko puntuaziora 2018ko uztailaren 31ko Aginduaren 9.3. artikulua
2	Rehabilitación Energética SL	NZEUR hiri-berritzea: Nearly-zero energy Urban regeneration	Ez da iritsi 70eko puntuaziora 2018ko uztailaren 31ko Aginduaren 9.3. artikulua
3	Rehabilitación Energética SL	Euskadiko aldaketa klimatikora egokitutako hiri-berritzerako gida: gauzatuta eta garatze bidean dauden hiri-konponbideen adibideak	Ez da iritsi 70eko puntuaziora 2018ko uztailaren 31ko Aginduaren 9.3. artikulua
4	Lurstudio Koop. Elk. Txikia	Naturan oinarritutako hiri-irtenbideak: azpiegitura berdeetako konponbideen gida teknikoa	Ez da iritsi 70eko puntuaziora 2018ko uztailaren 31ko Aginduaren 9.3. artikulua
5	Lurstudio Koop. Elk. Txikia	Euskadiren eta Kanadaren arteko konparazio-ikerketak, aldaketa klimatikora egokitutako hiri-berritzerako proiektuetako partaidetza-prozesuei buruzkoa	Ez da iritsi 70eko puntuaziora 2018ko uztailaren 31ko Aginduaren 9.3. artikulua
6	Grupo Turiskopio SL	GIS: smart city-rako 3D simulagailua	Ez da iritsi 70eko puntuaziora 2018ko uztailaren 31ko Aginduaren 9.3. artikulua
7	Oneka Arquitectura SLP	San Ignazio, San Jose, Arantzazu eta Legazpiako San Martin auzoak berritzea.	Ez da iritsi 70eko puntuaziora 2018ko uztailaren 31ko Aginduaren 9.3. artikulua
8	Lurstudio Koop. Elk. Txikia	Hiritarrek in batera hirigune hutsak aktibatzea: Bilboko hirigune hutsak ikertzea eta beroriek aktibatzeke parte hartzeke prozesua egitea	Ez da iritsi 70eko puntuaziora 2018ko uztailaren 31ko Aginduaren 9.3. artikulua
9	MAAb Arquitectura y Urbanismo SLP	Aterpe-Sun: hiri-markesinak eta -estalakiak garatzea energia fotovoltaikoa sartuta	Ez da iritsi 70eko puntuaziora 2018ko uztailaren 31ko Aginduaren 9.3. artikulua
10	Naider Análisis y Acción Socio-Economica SL	Naturia Eko-auzoak: naturaren bidezko eraldaketa ekologiko eta soziala eta hiri-berpiztea	Ez da iritsi 70eko puntuaziora 2018ko uztailaren 31ko Aginduaren 9.3. artikulua
11	Miriam Varela Alonso	Otxar «Active Frontage», hiri-birsortze integralerako plana	Bikoiztua